

BALIO PROPOSAMENA:

Autismoaren Espektroko nahasteak (AEN) duten pertsonen gaitasunak hobetzeko zuzendutako aplikazio ugariz beteta dago sarea. Gehienak komunikazioa erraztera eta maila kognitiboan estimulatzera bideratzen dira, baina badira espektroko pertsonak gehien eragiten dieten gaitasunak hobetzera zuzendutako beste batzuk ere, hala nola, harreman sozialak eta norberaren eta besteen emozioak ezagutzeko zailtasunak. Haurren emozioak lantzerantz bideratutako bat sortu dugu gurasoekin eta terapeutekin eta beste batzuekin batera, autismoa duten pertsonak euren gailuetatik landu ditzaten.

Gure programa kurtsilo moduko bat izango da, astean hiru saio izango ditu eta 18 asteko iraupena izango du. Gainera, guztiz doainekoa izango da; izan ere, Tolosako Udalarekin negozio bat egin dugu eta zerbitzu publikoetan sailkatuko duela adostu dugu. Saioko gela bakoitzean 10 pertsona egongo dira irakasleko. Guztira 10 gela egongo dira eta saioen iraupena 1h koa izango da. Ordu-tegiak Astelehena-Asteazkena-Ostirala 15:00h-16.00h 2 gela, egun beretan 16.00h-17.00h beste 2 gela. Azkenik, Asteartea-Osteguna-Larunbata 15:00h-16.00h 3 gela, eta egun beretan 16.00h-17.00h beste 3 gela. Hau izango da plana: 1-2. asteetan, hasierako ebaluazioa eta helburuak ezartzea izango da helburu, 3-6. asteetan komunikazioko oinarriko trebetasunak garatzea, 7-10. asteetan interakzio sozialaren sustapena, 11-14. asteetan enpatiaren garapena eta gizarte-ulermena, 15-18. asteetan indartzea eta etengabeko ebaluazioa.

Azkenik, saio guztiak egiterakoan, bukaerako azterketa bat egingo da eta erantzunak ebaluatu eta gero saioan jarraitzea edo ez erabakiko da.